

Matrikulazio prozesua

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren matrikulazio prozesua arautzeko azkeneko dekretua, duela hiru urte argitaratu zen eta bere helburua segregazioarekin bukatzekoa zela adierazi zuen Hezkuntza Sailak. Dekretu honek

albo kalte ugari izan ditu eta ez du segregazioarekin bukatzeko balio izan. Udarregiren kasuan 2 familia geratu dira itxaron zerrendan plaza nahikoak izanik ere.

Horregatik, atzo azken urteetako matrikulazio-prozesuen balorazioa eta Ikastolen Elkartetik egiten ditugun proposamenak aurkezteko agerraldia egin zen. Horren harira, gure hausnarketa eta planteamenduak jasotzen dituen [prentsa oharra](#) plazaratzen dizuegu.



Ekaineko ordutegia

Gogorarazten da, ekainaren 2tik 20ra HHko (3 eta 6 urte bitarte) eta LHko ikasleek eskolak goizez bakarrik izango dituztela, alegia, 9:00etatik 12:30era arte. DBH-ko ikasleek aldiz, ekainaren 2tik 12ra (biak barne) lanaldi jarraia izango dute, 8:25-14:30, eta ekainaren 13tik 20ra 8:25etik 12:30era.



Ikastola-Eguneko egitaraua

10:00: LH1-2-3 jolasak Ikastolan.

11:00-12:00: DBHko ikasleek arlo desberdinetan egindako proiektuak ikusgai egongo dira Eraikin Gorrian eta ikasleak beren lanak aurkezten egongo dira.

11:00: LH4-5-6 jolasak Ikastolan.

12:15: DBHko ikasleen jolasak Ikastolan.

12:15: HHko dantza emanaldia (Mikel Laboa Plazan eta txarra egingo balu Ikastolako frontoian).

14:00: Bazkaria frontoian.

Jarraian: DBHko ikasleek antolatutako ikuskizuna.

Ekainak 6-13: Haur Eskolak prestaturiko erakusketa (Sutegiko erakusketa aretoan).



Hitz-Aho guraso elkarteak

Ikastolaren eguna dela eta, Hitz-Aho guraso elkarteak datorren **ostiralerako, ekainak 6**, 17:00etatik aurrera txokolate jana antolatu du Askatasuna Plazan, eta 18:00etatik aurrera DJ Mendi izango da.



Jangelaz-zerbitzua

Jangelako bazkaldarrek ekainean izango duten menua honakoa da:

◆ 3-16 urtekoen menuak

[Ekaineko menua](#)

[Alergia eta intolerantzien menuak](#)

◆ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alegia eta intolerantzia menuak](#)



Gogoratu, izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinarazi behar dela, gutxienez bezperan, 13:00ak aurretik, **baita egun soltekako kasuetan ere**. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko. Hala egiten ez bada, eskaturiko menua kobratu egingo da.

Bertso-eskola 2025/2026

Aurten ere, 2025/26 ikasturterako guraso talde baten eskutik, bertsolaritza eskolak antolatuko dira LH3tik DBH4ra.

Noiz: astelehenero Udarregi eraikinean 12:30etik-13:30era eta 13:30etik 14:30era (Urritik maiatzera)

Urte osoko kuota: 65 euro

Bertsolaria: Lierni Rekondo

Kontaktua: 608 768 539

Irakurketa solasaldia

Ekainaren 12an, osteguna, 15:30ean, Sutegi Liburutegian, [IRAKURKETA-SOLASALDIA](#) izango da 11 urtetik gorako gaztetxoentzat (DBH barne). Mintzagai izango dugun liburua: Idoia Garzes lasartearraren KUKUAREN KANTUA.

Liburuak jada eskuragarri ditugu Liburutegian.

Iraupena: ordu bat.



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-ne neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu. [NEURRI HORIEK](#)

ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Ikastola eguna

Dakizuen bezala, **ekainaren 7an** Ikastolaren eguna ospatuko dugu. Eguerdiko **12:15ean HHkook gure emanaldia** eskainiko dugu **Mikel Laboa plazan** (eguraldi txarra egingo balu, Ikastolako frontoian egingo genuke gure emanaldia eta haurrak gure geletan bertan jasoko genituzke).



Haurrak 12:00etan jasoko ditugu herriko gunetan:

- HH 3koak: Mikel Laboa plazan, inmobiliaria ondoan.
- HH 4koak: Laboral kutxaren ondoan.
- HH 5koak: Kutxabanken ondoan.

Egun horretan haurrak **honela jantzita** ekarri behar dituzue:

- HH 3koak: kamixeta HORIArekin
- HH 4koak: kamixeta TXURIArekin
- HH 5koak: kamixeta URDINArekin

Zalantzarik baduzue, tutoreei galdetu.

Baso Eskola

Baso-eskolako saioak amaitu ditugu. Hori horrela izanda, eskertuko genizueke jantziak ondo garbituta, lehortuta eta poltsa batean sartuta tutoreari egun hauetan itzultzea:

- HH3: ekainaren 3an, asteartea.
- HH4: ekainaren 5ean, osteguna.
- HH5: ekainaren 4an, asteazkena

Zuen seme-alaben jantzia puskatuta baldin badago, jakinarazi irakasleari mesedez!



LEHEN HEZKUNTZA

Ikastola eguneko jolasak

Dakizuen bezala, ekainaren 7an, ikastola eguna ospatuko dugu. Goizean zehar ikasleen jolasak izango ditugu. Ikasleek ikastolako sarrera nagusira (errepide aldera) agertu beharko dute ondorengo orduan:

1, 2 eta 3. mailako ikasleak 9:45ean sarrera nagusian.

4, 5 eta 6. mailako ikasleak 11:00etan sarrera nagusian.



1, 2 eta 3. mailako ikasleak amaitzean, 11:00etan kiroldegi aurrean jasoko dituzue.

Bestetik, egokitu zaien zenbakiaren arabera (asteaz zehar tutoreek jakinaraziko die) koloredun kamisetarekin etortzera gonbidatzen ditugu:

1 zenbakia edo taldea: kamiseta beltza.

2 zenbakia edo taldea: kamiseta txuria.

3 zenbakia edo taldea: kamiseta urdina.

4 zenbakia edo taldea: kamiseta berdea.

LH2ko irteera

Ekainaren 5ean eta 6an LH2 mailakoak bi eguneko irteera egitera joango gara Orioko Txurruka aterpetxera. Ostiralean 15:45etan bueltatuko gara kiroldegira.



LH3ko irteeraren kobrantza

Datorren ostiralean, **ekainaren 6an**, Irrisarrilandera egindako irteera ordaintzen amaitzeko falta den zatiaren kobrantza egingo da.

Irrisarrilandeko egonaldiaren azken zatia: 36 € (orotara 86 € kostua izan du egonaldiak).

Autobusaren joan-etorria: 7,10 €

Denera **43,10 €** kobratuko da.



LH 5 eta 6-ko gurasoei zuzenduta: sexu heziketa

LH5 eta LH6ko ikasleek jaso duten Sexu-heziketako ikastaroa dela eta, LH5 eta LH6ko gurasoei saio bat eskainiko zaizue gai honen inguruan ikasleekin jorratu dena azaltzeko. Bertan, guraso bezala dituzuen kezkak aditu bati azaldu edota galdetzeko aukera ere izango duzue.



Data: Ekainak 9, astelehena

Ordua: 17:00etan

Lekua: Agerialdeko 3.solairuan

Etortzeko asmoa izango bazenute [eman izena hemen](#) ekainaren 5a, osteguna, baino lehen.

DBH

Ez dago berrik.